



Hizkuntzak ikasteko diru-laguntza deialdia 2016-2017

2017ko maiatzaren 29ko Osoko bilkuraren akordio bidez, diru-laguntza deialdia egin da, 2016-2017an hizkuntzak ikasteko, lehiaketa bidezko prozedurarekin.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat eginez, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsultatu daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

Lehenengoa. Onuradunak.

16 urtetik gora duten interesdun guztiak, Arratzua-Ubarrundian gutxienez urtebete lehenagotik erroldatuak.

Antzinakotasunaren epea beteta eduki beharko da, eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen.

Pertsona bakoitzak egin dituen ikastaro eta barnetegi beste beka eska ditzake. Hala ere, ikastaro bakoitzak diru-laguntza bakarra jasoko du.

Bigarrena. Helburua

Hizkuntzak ikasteko jarduerak finantzatzera bideratutako laguntza ekonomikoak ematea.

Diruz lagungarri izango dira edozein hizkuntza ikasteko matrikulak eragindako gastuak, baita atzerritarrentzako gaztelania ere. Ez dira diruz lagungarri izango joan-etorriek eragindako gastuak, edo, barnetegien kasuan, mantenu eta ostatu gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza hau arautzen duten oinarriak 2017ko maiatzaren 29an onartu ziren Udalbatzaren Osoko bilkuran, eta 2017ko ekainaren 16ko 68 zenbakidun ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntzen zenbatekoa honakoa izango da:



- Euskara-ikasketen kasuan, matrikularen prezioaren ehuneko 100era arte, 200 euroko gehienekoarekin.

- Gainontzeko hizkuntzen kasuan, matrikularen prezioaren ehuneko 75era arte, 200 euroko gehienekoarekin.

Zenbatekoa, egindako eskaeren eta aurrekontu-partidako zuzkiduraren arabera aztertuko da. Ezarritako gehienezko kopuruak kontuan izanik, eskaera bakoitzari dagokien esleipena egin eta gero, ez bada aurrekontu partida agortzen, gelditzen den diru-kopurua baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean banatuko da..

Ordea, esleitutako kreditua ez balitz nahikoa eskaera guztei goian adierazitako ehunekoekin erantzuteko, diru-laguntzaren ehunekoa gutxituko da, eskaera guztiak aintzat hartzeko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.

Ikasturtea bukatzen den urteko urriaren 31 baino lehen.

Seigarrena. Bestelako datuak.

Eskabide-orria eta deialdiaren oinarriak udalaren webgunean daude ikusgai: www.artzua-ubarrundia.eus
(Tramiteak/Aurrez-aurrekoak/Diru-laguntzak)

Duranan, 2017ko ekainaren 7an. Alkatea, Maria Blanca Antépara Uribe.

